


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GRADU AMAIERAKO LANA

**EGIPTO ETA MESOPOTAMIAREN ARTEKO
ELKARTRUKEEI HURBILKETA BRONTZE
BERRIAN ZEHAR (K.a. 1600-1100)**

Ikaslea: Oreina Fernández Larrea

Tutorea: Amalia Emborujó Salgado

Historiako Gradua, 2017-2018 kurtsoa

Ikasketa Klasikoen Departamentua

Abstract

Ekonomia elkartrukeak Brontze Berriko estatuen arteko harremanak ezagutzeko aukera bikaina dira. Zentzu honetan, iturri arkeologikoez gain, El Amarna garaiko Eskutitzak informazio iturri oinarritzkoa bihurtu dira ikerlariarentzat. Lan honetan, elkartruke motak, erabilitako bideak eta trukaturiko ondasunak azaldu ostean, El Amarnako EA 1 eskutitzetik EA 14 eskutitzera aztertuz, elkartrukeetan barneratuko gara Babilonia Kasita eta Egiptoko Erreinu Berria aztertuz. Eskutitzak elkartrukeen ezaugarriak finkatzeko baliogarriak izateaz gain, harreman politikoen testigantza dira. Horrez gain, metalek, patroi edo opari gisa, eta emakumeek, ezkontza diplomatikoen bidez, izandako papera erabakigarria izango da estatuen arteko harremanak definitzerako orduan.

Abstract

Economy exchanges can be an extraordinary way to discover the relationships between the states of New Bronze. On this matter, in addition to archaeological sources, the letters from El Amarnas Period have become a source of information for researchers. In this work, after explaining the types of exchanges, the route they used and the exchanged goods, El Amarna from EA 1 to EA 14 will be analysed. In this way, we will learn about exchanges by studying the Kassite dynasty of the Babylonian Empire and the New Kingdom of Egypt. Beside the fact that the letters are useful to establish the characteristics of the exchanges, they are a testimony of the political relationship. In addition, the role of the precious metals, as a pay way or gift, and women's through diplomatic marriage, will be decisive when determining the exchanges.

AURKIBIDEA

| | | |
|--------|--|----|
| 1. | SARRERA..... | 1 |
| 2. | TESTUINGURUA | 3 |
| 3. | ELKARTRUKEAK..... | 4 |
| 3.1. | Diplomazia: enbaxadak eta errege ordezkariak | 4 |
| 3.2. | Elkartruke bideak: lurrez nahiz itsasoz. | 6 |
| 3.2.1. | Siriar-palestinar eskualdea..... | 8 |
| 3.3. | Mesopotamiak eta Egiptok elkartrukaturiko ondasunak..... | 9 |
| 3.3.1. | Mesopotamiar jatorriko produktuak | 9 |
| 3.3.2. | Egiptoar jatorriko produktuak | 9 |
| 3.4. | Elkartruke motak | 10 |
| 3.4.1. | Oparien elkartrukea | 10 |
| 3.4.2. | Elkartruke administratua | 11 |
| 4. | ERREINU BERRIA ETA BABILONIA KASITA..... | 12 |
| 5. | EMAKUMEAK..... | 16 |
| 6. | ONDORIOAK | 19 |
| 7. | BIBLIOGRAFIA | 22 |
| 8. | ERANSKINAK | 24 |
| 8.1. | Iturrien irudiak | 24 |
| 8.2. | Diplomazia | 25 |
| 8.3. | Mapak..... | 27 |
| 8.4. | El Amarnako eskutitzak | 32 |
| 8.5. | Taduhepa | 35 |

1. SARRERA

Egipto eta Mesopotamiaren arteko harremanen adierazle garrantzitsuenetakoa elkartruke ekonomikoak ditugu. Zentzu honetan, El Amarnako Eskutitzak (ikus. eranskinak 8.1.1.) iturri baliogarriena ditugu. Dokumentu idatzi hauek harreman diplomatiko zein elkartruke harremanen informazioa biltzen dute. Hala ere, kontuan hartu behar dugu eskutitzak zenbaitetan propaganda politikoaren eredu direla; hau da, harremanak indartzeko iraganeko erregeengan bilatzen zuten legitimizazioa.

Brontze Berriko elkartrukeen egoera ulertzeko, K.a. 1600-1000¹ urte tartea aztertuz, historiografiak biltzen dituen eduki teorikoez gain, elkartrukeetan sakontzeko helburuarekin, Babilonia Kasitaren eta Egiptoko Erreinu Berriaren arteko harremanak azalduko dira. El Amarnako EA 1 eskutizetik EA 14 doazen eskutitzak aztergai izanda, xedea estatuen arteko harremanetan ezkontza diplomatikoez eta metalek (urrea eta zilarra) ondasun gisa jokatu zuten papera aztertzea izango da. Aldi berean, elkartruke hauek bideratzeko zibilizazio hauek garatu zuten aparatu administratiboaren emaitza zuzena dira eskutitz hauek.

Aldi berean, Tutmosis III.aren Analek (ikus. eranskinak 8.1.2.) Egiptok siriar-palestinar eskualdean zuen hegemonia azaltzen dutenez, Egiptok zonalde horrekiko izan zuen menpekotasuna jorratuko da. Hau da, zonalde horren kontrolak Mesopotamiara sartzeko igarobideen sarrera bermatuko zion, Mesopotamiako estatuen koiuntura aldatuz. Beraz, lan honen bitartez, elkartrukeak berdintasunean oinarrituak baziren ere, eskutitzek adierazten diguten Egiptoren nagusigoa islatzen saiatuko gara.

Iturrien edukiari erreparatuz, El Amarnako² Eskutitzak Erreinu Berriko harreman politiko-komertzialen testigantza esanguratsuen bihurtu dira (Pons 2009, 86-87). Eskutitz hauen bidez, Egiptok hegoaldeko Levanten zuen domeinua aztertu daiteke. Buztinezko tablillak dira, akadieraz idatziak, Egipto eta Mesopotamiako estatuek idatzirikoak. Artxiboa XVIII. Dinastiaren amaieran datatzen da Amenofis III.aren, Amenofis IV.aren eta Tutankhamon faraoien erreinaldian (1403-1335) (Kuhrt 2001, 218).

¹ Hemendik aurrera, kontrako esan ezean, data guztiak Kristo aurretikoak izango dira.

² Amenofis IV.aren garaian, Amarna hiria Aton jainkoaren omenez altxatu zuten hiria izan zen. Menfis eta Tebas hirien artean kokaturik zegoen, eta bere erreinaldiaren 6. urtean, hiriburua bertara lekualdatu zuten (Perez Largacha 2006, 341).

Ekialde Hurbileko historiografian, ez dago teoria orokor onartu bat Antzinateko ekonomiaren izaeraren inguruan. K.a. II. milurtekoetik aurrera, jabetza pribatuaren presentziak ikerlariak banatu zituen: primitibistak eta modernistak. Karl Bücher (1847-1930) erreferente zuten primitibistek merkatu gabeko ekonomia defendatzen zuten. Modernisten artean Eduard Meyerren (1855-1930) teoriak nagusitu ziren; kontzeptu garaikideak Antzinateko hurbiltzen dute, merkataritza libre kapitalista batean oinarrituriko ekonomia bat eta merkatuaren presentzia defendatuz (Aubet 2007, 25-26). Bestalde, historiografia marxistak bere eragina izan zuen; Ekialde Hurbileko antzinateko zibilizazioen ekonomia izendatzeko modu asiarra kontzeptua baliatu dute, merkatuaren eztabaidan, elkartrukeko ondasunen produkzioan oinarrituriko ekonomia bat zela argudiatuz (*Ibidem*, 27-29).

Merkatuaren presentziaren eztabaidan, eragin handia izan duen ikerlari eta historialaria Karl Polanyi (1886-1964) da³. Primitibismoaren marko teorikoa defendatu zuen, baina aldaera substantibista emanen. Bere zentsu substantibistari erreparatuz, izaera ekonomikoa egitura sozialaren parametroetan integraturik dago; ondorioz, elkartruke harremanak lege batzuek zuzentzen dituzte. Hiru integrazio mota definitzen ditu edozein ekonomiaren baitan: elkarrekikotasuna, birbanaketa eta elkartrukea (Polanyi 1976, 296). Birbanaketa modeloa estatuen arteko elkartrukea ematean azaldu zen (Liverani 2003, 200). Brontze Berrian zehar, elkarrekikotasun modeloa zabaldu zen elkartrukeak orekatzean, erlazio diplomatikoei hasiera emanen (*Ibidem*, 205).

Polanyik Antzinateko Ekialde Hurbileko gizarteak birbanatzaile bezala definitzen ditu, baina akordioetan oinarrituriko elkartruke baten (administratua) presentzia dagoela defendatzen du; hau da, aurretiaz prezioa⁴ finkatu dela (Polanyi 1976, 301).

Hurrengo orrialdeetan, testuinguru historikoa eta estatuak izandako elkartrukearen ezaugarriak landuko dira, eta ondoren, harreman horien adibide gisa eta El Amarnako Eskutitzetan oinarrituz, Babilonia Kasitaren eta Egiptoko Erreinu Berriaren arteko elkartrukeak arituko naiz, harreman politikoetan eta elkartrukeko ondasunen inguruan sakontzeko. Azkenik, atal bat eskaini zaio emakumeari, bere ekonomia gaitasunaz eta elkartrukeetan izandako papera adieraziz.

³ Bere obra nagusia *Trade and Markets in the Early Empires* (1957) dugu.

⁴ Prezioak finkaturik dituen elkartrukeak, onura bat suposatzen du bi aldeentzat. Bestalde, prezioa mota desberdineko produktuen arteko erlazio kuantitatiboa da, trukearen bidez lortua (Polanyi 1976).

2. TESTUINGURUA

Ekialde Hurbileko XVI. mendeko krisia ostean, Brontze Berria (1600-1100) hasten da. Mende hauetan, Egipto, Mitanni, Asiria, Babilonia eta Hatti (ikus. eranskinak 8.3.1.) Ekialdeko Mediterraneoaren inguruan elkartzen joango dira, *koiné* kultural eta politiko bat eratuz. 1200 urtearen aldera, kolapso bat izango dute, zein Ramses III.aren Medinet Habu hilobi tenpluko testuek biltzen dute. Itsasoko Herriek potentzia handien egitura politikoa deuseztatu zuten, Egipto izanik aurre egin zien bakarra (Perez Largacha 2006, 273).

Erreinu Berrian (1550-1069), Egiptok loraldia izan zuen, alderdi politiko zein ekonomikoetan. Krisi dinastiko eta politikoak eman baziren ere, Egiptok area geografiko zabal baten gainean zuen domeinua ez zuen deuseztatu. Instituzionalki zein militarki, indartsu zegoen eta horrek haren hedapena ulertarazten digu: siriar-palestinar eskualdean bere domeinua ezarriko du, zeinek Mitanniri eta Hititen Inperioari aurre egin beharko dien eskualde horretako merkataritza bideen kontrolarengatik (Perez Largacha 2006, 273).

Iturriei dagokienez, aberatsa den garaia dugu. Abu Simbel (Nubia), Karnak (Tebas) edo Medinet Habu (Tebas hiriaren mendebaldean) garai honetako tenpluak ditugu. Bestalde, El Amarnako aldiak eskaintzen dituen iturriak elkartrukeen ulermenerako ezinbestekoak ditugu. Garai honetako faraoi esanguratsuenak Hatshepsut erregina, Tutmosis III.a, Amenofis IV.a/Akhenaton edo Ramses II.a izan ziren (Kurht 2000, 215).

Mesopotamian, bitartean, estatu hauek gailendu ziren: Babilonia Kasiten dinastiapean, Asiria, Mitanni hurriten dinastiapean eta Hatti. 1500 inguruan, Mitanni zen erreinu boteretsuena Ekialde Hurbilean, baina XVIII. Dinastiarekin siriar-palestinar eskualdearen kontrolarengatik izan zituen liskarrek, botere horren ahultzea eragin zuten (ikus. eranskinak 8.3.2.). Behe Mesopotamian, Babilonian dinastia kasita ezarriko da, zeinek egonkortasuna bermatuko duen (Perez Largacha 2006, 273). Zagros Mendietan jatorria zuten herriak ziren, zeintzuek Mesopotamia hegoaldeko eta erdiguneko estatuak eta eskualdeak batu zituzten eta Babiloniako instituzio eta kultura bereganatu zituzten (Gestoso 2006, 191). Asiria, Brontze Berrian zehar, Mitanniren boterepean aurkitzen zen. Tutmosis III.ak Mitanniren aurka bideraturiko kanpaina politiko eta militarrei esker, Asiriak askatzea lortu zuen, aldi berean, Babilonia Kasitaren babesa zuelarik. Azkenik, Hatti inperioak, bere aldetik, Siriako iparraldeko lurren kontrola hartzea zuen

xede Egipto eta Mitanniren arteko liskarrak aprobetxatuz. Egiptorentzat hititak beste lehiakide bat izango ziren (Perez Largacha 2006, 286).

3. ELKARTRUKEAK

Egipto eta Mesopotamiaren arteko elkartruketan murgildurik zeuden estatuak, Tutmosis III.aren erreinalditik Akhenatonen erreinua arte, Mitanni, Asiria eta Babilonia izan ziren. Atal honetan, elkartruketen ezaugarriak bilduko dira, elkartruke bideak, trukaturiko ondasunak eta elkartruke motak azalduz. Betiere, El Amarnako Eskutitzen zein Tutmosis III.aren Analen garrantzia azpimarratuz.

K.a. II. milurtekoaren bigarren erdialdetik, El Amarnako Eskutitzek erakusten dute Mitanni izan zela buru Ekialde Hurbilean, salbuespen batekin: siriar-palestinar zonaldea. Mitannik eta Egiptok eremu hori bereganatzeko liskarrak izan zituzten. Tutmosis III.ak 17 kanpaina bidali zituen eta Megiddo-ko batailan eremua bereganatua zuen, Mitanniren alde zeuden siriar-palestinar printzeen koalizioa garaituz: *“Los grandes de Mitanni se presentaron ante él con sus regalos a la espalda para implorar la gracia de su Majestad y también su dulce soplo de vida”* (Pons 2009, 86)

Ondoz ondoko erreinaldietan, botere harremanei ezkontza diplomatikoen politikak eta menpekotasun tratatuek (; Perez Largacha 2007, 275) eman zioten erantzuna (Gestoso, 2006, 189). Egiptok Mitannirekin errege-kontseilarien bidalketa nahiz estatu arteko elkartrukeak bideratu zituen. Babiloniarekin, aldi berean, oparien elkartruketen erregistroak⁵ aurkitu dira (Gestoso 2006, 190-191). Modu honetan, ezkontza diplomatiko zein tratatuek estatuen arteko batasuna bermatzen zuten, eta Egiptoren xedeetako betearazten zen: hititen⁶ hedapena geldiaraztea (Gestoso 2008, 130-132).

3.1. Diplomazia: enbaxadak eta errege ordezkariak

Testuinguru politiko horretan, elkartrukeak bideratuko ziren. Estatu handien arteko erlazio diplomatikoetan elkarrekikotasuna nagusitu zen, luxuzko oparien bidalketa handiekin. Estatu txiki edo basailuekin (siriar-palestinar zonaldea), estatu handiek

⁵ El Amarnako EA 1tik EA 14ra doazen eskutitzek Egipto eta Babilonia Kasitaren arteko elkartruketen eta diplomazia harremanen testigantza garrantzitsuena dira.

⁶ Suppiluliuma (1344-1322) tronura iritsi aurretik, Hititen lurraldea krisian sarturik zegoen. Bere erreinaldipean Hititen Inperioa eratzen da. Pontoko probintzia liskartsuekiko harremanak lasaitzean, nazioarteko politika martxan jarri zuen: Mitanni eta hegoaldeko Siria ziren abiapuntuak. Mitanniren eragina Sirian ahultzeko, Egiptoar faraoiekin kontaktuan jarri zen, eta aldi berean, Sirian mitanniar basailuekin harremanak finkatu zituen. Bere kanpaina militarrek Qadesh-en bukatu zuten: Hatti Inperioa sortua zuen, Egiptorentzat arriskutsua izango zena (Liverani 1995, 400-401).

inposaturiko objektuen eta zergen bidalketa emango zen. Estatuetakoa erregeek nahiz faraoiak merkatarien mugimendua ziurtatu behar zuten, eta erasoan edo lapurretan kargu egin. Botere adierazpen bat zen, eta estatuak bere menpean zituen lurren kontrola izan behar zuten (Perez Largacha 2010, 17). Erlazio horien isla garaiko lengoia diplomatikoan aztertu daiteke. Errege handien artean berdintasunezko formulak baliatuz zuzenduko ziren bata besteari: *anaia* formula nagusituko zen (Pons 2009, 86). Errege txikien kasuan, haien lurraldeak estatu basailutzat hartzen dira (Gestoso 2007, 275).

Oparien elkartrukearekin batera, tratatuen firmak eta ezkontza diplomatikoen *koiné* kulturala osatuko zuten; hau da, tradizio eta ohitura komunak partekatuko dituzte. Eta siriar-palestinar eskualdeko estatuen kontrola bermatzeko, aurrerago adibide bat ikusiko den bezala, bertako printzeen hezkuntza Egipton bideratuko zen (*Ibidem*, 24).

Elkartrukeak bideratzeko orduan, errege ordezkarien eta enbaxaden presentzia garrantzitsua izan zen. Egiptoko XVIII. Dinastiako fraseologian, adibidez, errege ordezkariaren ekintzak erregearenak ziren. Errege ordezkariak erregearen hitzak errepikatzen zituzten eta monarkaren interesen arabera jarduten zuten (Galán Allué 1995, 112). Bi mailatan kokatzen ziren ordezkariak: mezulari edo interpreteak edo erregearen eta enbaxaden arteko bitartekariak (*Ibidem*, 122).

Errege ordezkariekin batera, enbaxada joaten zen. Hala ere, errege ordezkaria baino ez zen sartuko audientzia gelan erregearekin hitz egiteko. Elkarrizketa horretan, faraoiak haren beharretara eta gainerako enbaxadoreen beharretara olia, zilarra nahiz urrea jartzeko agintzen zuten, zeinak behar pertsonaletarako ziren. Faraoiaren tratuak, herrialde horrekiko estimua adierazten zuten (Kuhrt 2001, 383).

Errege ordezkariak, opariez gain, haien erregearen eta herrialdearen inguruko informazioa ahalbidetu behar zuten. Aldi berean, protokoloaren beste neurrietako bat, beste monarken inguruan galdetzea zen, eta horietako bat gaixorik egonez gero, mezuak bidali behar zitzaizkion (ikus. eranskinak 8.2.1.). Enbaxadak gortean ematen zuten denboran, harrera formal bat antolatzen zen, zeinetan ordezkariak lurralde horretako monarkarekin ezkonduz zeuden bere erregearen alaba edo ahizpekin kontaktuan jartzen zen. Opariak nahiz mezuak emateko aukera zuten, eta aldi berean, haien estatusari egokitzen zitzaion tratua jasotzen zutela ziurtatu zezaketen (*Ibidem*, 384).

Errege ordezkarien garrantziaren testigantzak El Amarnako hilobiak ditugu. Adibide gisa, Tuturen hilobia hautatu da (ikus. eranskinak 8.2.2.). Egipto eta Siria arteko eskutitzetan azaltzen da, bozeramaile edo bitartekari funtzioa betez: “*Yo soy el [...] super[visor] de las misiones de todas las tierras extranjerias. Soy quien transmite sus palabras a palacio, estando en [...] cada día. Yo llevo a ellos como comisionado real con cada una de las instrucciones de [su] majestad*” (Galán Allué 1995, 120).

3.2. Egipto eta Mesopotamiako eskualdeen arteko elkartruke bideak: lurrez nahiz itsasoz.

Testuinguru politikoa azalduz, elkartruke bide nagusiei emango zaie sarrera. Brontze Berrian zehar, Egiptok eta Mesopotamiako estatu handiek distantzia luzeko elkartrukea garatu zuten. Leemans-en arabera, distantzia luzeko elkartrukea bi modutan eman zitekeen: merkatariak bere produktuekin eskualde batetik bestera bidaiatzen zuen⁷, edo bitartekariak egoten ziren. Asiriarrak zuzeneko elkartrukean gailendu ziren bitartean, Babiloniako merkatariak bi moduak baliatu zituzten ondasunak elkartrukatzeko orduan (1960, 22).

Mesopotamiako estatuen papera nazioarteko elkartrukean, ez zen posiblea izango jarraian azalduko den ibilbide sare konplexu hau gabe. Mesopotamiako estatuak elkartrukeak gauzatzeko, hauek izan ziren bide erabilienak Egiptoren aldetik: itsas ibilbidea edo Mediterraneoko Bidea, zeinek kosta asiarra inguratzen zuen Niloko deltaren eta Minet el-Beida (Siriako kostaldean) artean; eta lurreko bi bideak, *Via Maris* (Zisjordania) eta Errege Bidea (Transjordania), zeintzuek siriar-palestinar korridorea zeharkatzen zuten (Gestoso 2006, 193-194) (ikus. eranskinak 8.3.3.).

Siriar-palestinar korridorerara iritsita, eskualdea zeharkatu eta Alepo edo Palmira hirietara ailegatzen ziren, non Mari edo Babiloniara bidaiatzen zuten karabana eta elkartruke bideekin aurkitzen ziren (*Ibidem*, 194).

George Roux-ek, bestalde, Mesopotamiak baliatutako ibilbideak azaltzen ditu. Barneko elkartruke bideei dagokienean, hiriburu batetik besterako mugimendua ibaien bidez ematen zen. Tigris eta Eufrates ibai bidezko ibilbide garrantzitsuenak ziren, zeintzuen bidez hiriak batzen ziren (1987, 29). Ontziak kanaberen eta ihien bidez eraikitzen ziren;

⁷ Leemans-ek K.a. XX. eta XVI. mendeko zibilizazioak aztertzen ditu. Hala ere, aplikagarriak zaizkigu gure garairako berak ezarritako bi elkartruke motak: elkartruke zuzena eta bitartekari bidezko elkartrukea.

tamaina handiagokoak larruz eginik zeuden, edo zura eta larruz. Testu akadiarren arabera (ca 2000), ontziek 28 tona hartzera hel zitezkeen. Babiloniar jatorria zuten produktuak, adibidez, ontzi txikitan garraiatzen ziren Ur hiriraino. Hiri honetan, produktuak ontzi handiagoetan sartzen ziren Failaka, Bahrain eta Kuwait uharteetara, Elam eskualdera, Omaneko kostaldera eta Indoko zonaldera eramateko (Gestoso 2006, 196).

Mesopotamiako mugetatik kanpo, bi bide handik Mendebaldeko Siriara eta mediterraneoko kostaldera hurreratzen zituzten mesopotamiar merkatariak. Lehenengo bidea Sipparren hasten zen, Eufrates ibaia igoz Mariraino. Ondoren, lerro zuzenean, 380km aurrera, basamortua zeharkatzen zuen, Tadmur (Palmira) zeharkatuz. Hortik, Qatnara ailegatzen ziren, Siriako Homs hiritik gertu. Bertatik, portu feniziarretara heldu zitezkeen. Basamortu zeharkatzea arriskutsua zen eta nomaden erasoak jasan zitzaketen. Horregatik, merkatariak zein enbaxadek bigarren bidea nahiago zuten, luzeagoa bazen ere. Ibilbide hau ere Sipparretik ateratzen zen, Samarra hiriaren parean Tigris ibaira heldu, eta erriberak jarraitzen zituen Ninive hiriko inguruetara arte. Hortik, Jazirah estepa zeharkatzen zen ekialdetik mendebaldera, Qarquemish edo Emarren Eufrates ibaia hartuz. Eufrates ibaia itsasontzi bidez zeharkatzen zen, eta Aleporen inguruetara hurreratzen ziren, Orontes haranera helduz, nondik Siria hegoalderako eta Mediterraneo Itsasorako bideak zabaltzen ziren (Roux 1987, 29-30) (ikus. eranskinak 8.3.4.).

El Amarna garaian, mezulari eta merkatariak 30-35km ibiltzen zituzten egunero. Adibidez, Egiptotik Mitannirako ibilbidea hilabete bat edo biren buruan betetzen zuten, eta Babiloniar hilabete eta erdi eta 3 hilabete artean. Asiriak eta Babiloniak, bestalde, itsasoko bidea baliatu zuten: Minet el-Beida portu siriarrak baliatu ziren Urara⁸ heltzeko Txipretetik, zura, kobrea, olio eta aleak elkartrukatzeko asmoarekin (Gestoso 2006, 194). Elkartruke hauetarako, ontziaz gain, karabanak erabiltzen ziren, gizon eta karga animaliek osatuak (*Ibidem*, 196).

Beraz, Mesopotamiako estatu handiak beste eskualde batzuen (Egipto, Hatti, siriarpalestinar eskualdea) bitartekari gisa jardun zuten, zeintzuek produktu falta zuten eta distantzia luzeko elkartruke bidez baino ezin ziren eskuratu (Gestoso 2006, 189-197). Bestalde, Babilonia, Mitanni edo Asiria elkartruke honetaz baliatu ziren Egiptoko zein siriarpalestinar zonaldeko produktuez hornitzeko. Aurrerago ikusiko den bezala,

⁸ Ura: Hatti erreinuko ondasunen irteera eta sarrerarako ate garrantzitsuena, Anatolian.

metalek paper garrantzitsua jokatu zuten elkartruke hauetan, eta Egiptok estatu hauek hornituko zituen.

3.2.1. Siriar-palestinar eskualdea

Siriar-palestinar zonaldea Palestinak, Jordaniak, Libanok eta hegoaldeko Siriak osatzen dute. XVIII. Dinastiaren hasieran eta Tutmosis III.aren erreinalditik aurrera (1490-1436), Egiptok zonalde honetan jarri zuen ikusmira (Kuhrt 2001, 355).

Mitanni edo Hatti bezalako estatu boteretsuek periferia hau kontrolatzeagatik borrokatu zuten Egiptoren aurka. Ekialde Hurbilera joateko elkartruke bide ugari iristen ziren eta bere kostaldean Ekialdeko Mediterraneoarekin elkartrukean aritzeko portuak kokaturik zeuden. Egiptoarren politikak siriar-palestinar korridorean hiru helburu zituen: batetik, eskualde arteko elkartruke sistemarako sarrera kontrolatzea; bestetik, nekazal eta baso ekoizpenerako zonaldeak esplotatzea; eta azkenik, tokiko gobernarien boterea neutralizatzea (Gestoso 2008, 132).

Periferia honen kontrolerako, Egiptok Sirian eta Palestinan zituen jabetzak distritutan banatu zituen: Amurru, Siria erdialdea, Upi, hegoaldeko Siria, eta Kanaan, Palestinan (*Ibidem*, 132) (ikus. eranskinak 8.3.5.). Dinastia kanaandarrak, adibidez, eskualde mailan egiptoarren interesak defendatzen zituen, eta zergak ordaintzera beharturik zeuden bera eta beste eskualdeak. Horren truke, segurtasuna eta laguntzak jasotzen zituzten. Egiptoarren politika garrantzitsu bat eskualdeko kontrolari begira, errege kanaandarren semeak gorte egiptoarrean hezteara izango zen. Horrela, adiskidetasun harremanak sortzen ziren, zeintzuk errege mezularien bidalketaren bidez bermatuko ziren.

“Habla al rey, mi señor, mi sol: mensaje de Yahtiru, tu servidor y polvo que pisan tus plantas. Me arrojó a los pies del rey, mi señor, mi sol, siete veces y siete veces [...]. En mi juventud, me llevó a Egipto. Serví al rey, mi señor, y guardé la puerta de la ciudad del rey, mi señor. [...] y doquiera que vayan los arqueros del rey, mi señor, allá voy con ellos” (Kuhrt 2001, 366).

Siriar-palestinar eskualdearekin harremanak indartzeak, hainbat produkturen sarrera eskaintzen zion Egiptori: Palestina eta Siriatik ardoa, zerealak zein olioak; Libanotik zura eraikuntzarako; litoral feniziarretik gertu zeuden hirietatik artisautza produktuak eskuratzen zituzten, bereziki ehunak. Bestalde, Siriako Biblos hiriari esker,

Mesopotamiako, Asia Txikiko eta Egeo Itsasoko produktuak heltzen zitzaizkion. Modu honetan, Siria zein Asia Txikitik burdina lortzen zuten, Txipretik kobrea edo Mitannitik zaldi zein gurdiak (Avdiev 1986, 85).

3.3. Mesopotamiak eta Egiptok elkartrukaturiko ondasunak

3.3.1. Mesopotamiar jatorriko produktuak

Lehen mailako produktu gisa sesamo olio, oliba olio, ardoa, ezta zein espezieak aipatzen ditu Gestosok Mesopotamiako periferiatik eta Van Laku eta Armenia inguruetatik lortuak. Bestalde, Erreinu Berriaren amaieran, Anastasi papiroetan⁹ Egiptora bidalitako olioen zerrenda aurkitzen da, zeintzuk Txipre, Hatti, Amurru, Siria-Palestina, Babilonia eta Mitannitik bidaltzen ziren, ejertzitoaren elikaduran inposatzeko helburuarekin (2006, 197).

Ganaduari dagokionean, Mitannik, Babiloniak nahiz Asiriak behi aziendak izanda ere, Ugariten beharra izan zuten garraio animaliak lortzeko – astoak zein idiak – (*Ibidem*, 198).

Hurrengo ondasunen zerrenda, Mesopotamiak bidalitako opariei dagokie: lapislazuli, gizon zein emakumeak, gurdiak, zaldiak (Armijo 2003, 124-125), erretxina, malakita, artilea, ehunak zein bitxiak (Gestoso 2006, 198-199).

3.3.2. Egiptoar jatorriko produktuak

K.a. II. milurtekoan, urreak oinarrizko papera bete zuen estatuen arteko elkartrukean (Gestoso 2006, 200). Baina urreak bakarrik ez, El Amarnako Eskutizetan oinarrituz, Egiptok bere estatu lagun eta basailuei bidalitako beste metalek garrantzia izan zuten (Pons 2009, 88).

Mitannik, Tushratta erregearen erreinaldipean, Egiptori urrea eskatzen dio (EA 24): “... *tu padre envió mucho oro, envíame gran cantidad de jarras de oro y plata, envíame lingotes de oro...*”. Beste adibide bat Alasiarekin (Txipre) izandako harremanak dira, zeintzuk 8 eskutizetan bildu diren. Kasu honetan, urrea edo zilarra beharrean, kobrea bidaltzen zaio (EA 34): “... *mira hermano mío... con la presente te envío por mi mensajero cien talentos de cobre...*” (*Ibidem*, 89).

⁹ Eskribauek entrenatzeko zerabiltzaten papiroak dira.

Amenofis IV.aren erreinalditik aurrera, eskutitzen ugaritzea ematen da, erlazio diplomatikoen indartzearen ondorioz. Hala ere, ondoko estatuen kexak biltzen dira, Egiptoren gainbehera adierazten delarik. Asiriak, Assuruballit I.aren erreinaldian (1365-1330), adibidez, hauxe leporatzen dio EA 16 eskutitzean:

“... El oro en tu país es como el polvo... Cuando el rey de Hanigalbat escribió a tu padre, a Egipto, él le envió 20 talentos de oro [...], pero a mi tú me has enviado apenas... oro, y ni siquiera suficiente para pagar a mis mensajeros por sus viajes” (*Ibidem*, 90).

3.4. Elkartruke motak

Karl Polanyik adierazi bezala, gizarte birbanatzaileak ziren, baina akordioetan oinarrituriko elkartrukea garatu zuten (1976, 301). Hala ere, Polanyiren lerroari jarraiki, bi elkartruke mota bereizi dituzte ikerlariek: oparien elkartrukea eta elkartruke administratua.

3.4.1. Oparien elkartrukea

Mota honetako elkartrukea gizarte primitiboen bereizgarri dugu, eta bereziki, gizarte horien eliteena, beraz, izaera zeremoniala du, zeinetan luxuzko produktuak elkartrukatuko ziren. Elkartruke mota honek elkarrekikotasun erlazio baten bidez bi parteak lotzen ditu (Aubert 2007, 50). Elkartruke hauetan enbaxaden aurkezpena ematen da, eta tratu politikoak burutzen dira errege edo buruen artean (Polanyi 1976, 307).

Graciela Gestosok (2006) Tutmosis III.aren Analetan oinarriturik, luxuzko objektu horien zerrenda eskaintzen du. Asiria, Mitanni, Hatti nahiz Babilonia bezalako herrialdeek Tutmosis III.ari bidaliriko produktuak hurrengoak dira: zilarra, lapislazuli, ebano, marfila, bitxiak, olioak, gurdiak, zaldiak, etab. Hauek prestigio ondasunen zirkuitu bat osatu zuten. “*Hatti envió regalos a Su Majestad (Tutmosis III) a Egipto, después que él (el faraón) regresó de Naharina (Mitanni) y ensanchó las fronteras de Egipto*” (Gestoso 2006, 205).

El Amarnako Eskutitzek ere oparien zerrenda bat ematen digute. EA15 eta EA17 eskutitzetan, adibidez, Asiriak zein Mitannik Egiptori bidalitako opariak islatzen dira: gurdi bat, 2 zaldi eta lapislazuli harri bat Asiriaren partez, eta gurdi bat, 2 zaldi, gizon eta emakume hititar bana Mitanniren partez (Armijo 2003, 125). Egiptok haiei

bidalitako oparien berri ez dago, baina EA5 eskutitzean, Egiptok Babiloniari ebanozko ohe bat eta 5 aulki oparitzen dizkio urrea txertaturik zutela (*Ibidem*, 124).

Opari materialez gain, ezkontza diplomatikoak ere elkartruke honetan sartu ziren; Amenofis III.ak Babilonia nahiz Mitanniko printzesekin ezkontza-aliantzak itundu zituen. Kasu guztietan, printzesa bere dotearekin batera eskaintzen zen ezkontza oparien truke. Azken finean, estatu desberdinen arteko errege zein faraoien harreman diplomatikoen indartzea zen helburua (Gestoso 2006, 207).

3.4.2. Elkartruke administratua

Elkartruke administratua, tratatu elkartrukea (*tready trade*) bezala ezagutua, antzinateko munduan azaleratuko zen. Parteen arteko akordio edo tratatu formaletan oinarritzen da. Metodo administratiboen bidez bideratzen da eta estatuak kontrolaturiko kanalekin zuzentzen da. Estatuak tasak, prezioak eta segurtasuna kontrolatzen ditu (Aubet 2007, 50). Hala ere, ekonomiaren aldakortasunaren aurrean, prezioak, pisuak edo ordaintzeko moduak aldaketak jasan zitezkeen; hau da, tratatuen gainbegiratzea edo tratatuak egiteko aukera zegoen, baina krisi edo garai gogorretan (Polanyi 1976, 308).

Elkartruke administratua merkataritza elkarte permanenteak daudela adierazten du; hau da, gobernuaren antzekoak. Natiboekin eginiko tratatuak tazituak edo isilak izan zitezkeen; erregeen artean, II. milurtekoetik aurrera, tratatu formalak ezarri ziren. Behin eskualde batean ezarririk, elkartrukearen forma administratiboak inolako trataturik gabe bideratu zitezkeen. Instituzio garrantzitsuena elkartruke portua da, zeinek segurtasun militarra, zibilen babesa edo biltegitratzea biltzen zituen (*Ibidem*, 308).

Tutmosis III.a eta Akhenaton faraoien erreinaldien artean Egipto eta Mesopotamiako estatuen arteko ondasunen elkartruke jariakor bat eman zen. II. milurtekoan zehar, zilarra elkartruke patroia izan zen; Babilonia salbuespen dugularik, urre patroiarekin. Beraz, elkartruke administratua metal batean oinarrituriko truke patroia bati egingo lioke erreferentzia (Gestoso 2006, 207-208).

Hirugarren elkartruke mota batez hitz egiten digu Polanyik: *market trade*. Eskaintza-eskaria-prezio merkatu mekanismoak kontrolatuko lituzke (Polanyi 1976, 309). Hala ere, kapitalismo aurretiko ekonomiez ari garenez, termino modernistak azaleratzea izango zen.

4. ERREINU BERRIA ETA BABILONIA KASITA

Elkartruke horien adibide Egiptoko Erreinu Berriaren eta Babilonia Kasitaren arteko harreman diplomatikoak ditugu. Iturri garrantzitsuena eta bi estatu hauen arteko erlazio politiko-komertziala islatzen duten testigantzak El Amarnako Eskutitzak dira: EA 1 eskutitzetik EA 14 eskutitzera, Amenofis III.a (1417-1379) eta Kadashman-Enlil I.aren (1374-1360) arteko eskutitzak eta Amenofis IV.a (1379-1362) eta Burnaburiash II.aren (1359-1333) eskutitzak biltzen dira. Gainera, eskutitzek, bi elkartruke moten presentzia adierazten dute: oparien elkartrukea eta elkartruke administratua. Bestalde, ikerlari askok urre patrioiaren presentzia azpimarratu dute, elkartruke hauen bereizgarri gisa.

Kasitak nazioarteko diplomazian berrezarri ziren Tutmosis III.aren kanpaina militarrek Mitanniren aurka egindako erresistentziaren ondorioz. Faraoiari eskutitzak eta enbaxadak bidaliz sendotu ziren harremanak. Burnaburiash II.aren garaikoak dira eskutitz gehienak, zeintzuetan Amenofis III.ari Kurigalzu I.aren (1405-1374) alabarekin izandako ezkontza gogoratzen zaion, bi estatuen arteko harremana islatuz (Perez Largacha 2006, 320).

El Amarnako Eskutitzek adierazten dute Babiloniaren posizioa estatu handi eta boteretsu batena zela, nazioarteko ikuspuntu batetik: Babilonia eta Egiptoren arteko mezulari elkartrukea ohikoa zen, eta egiptoar faraoiak *anaia* tituluarekin deitzen zuen Babiloniako erregea (Kuhrt 2001, 379).

Kurigalzu I.aren erreinaldian zehar Egipto eta Babiloniaren arteko harremanak sendotu ziren, Babiloniako erregearen alaba Amenofis III.arekin ezkontzean. Ezkontza politikoek sortutako erlazioak luxuzko produktuen bidalketa normalizatu zuen. Harremanak Amenofis III.ak Kadashman-Enlil I.ri bidalitako eskutitzean (EA 1) adierazten dira:

“Cuando tú me escribiste así: «Mis hijas, que están casadas con reyes de países vecinos, cuando mis mensajeros llegan hasta allí, hablan con ellas [y me envían] un regalo a modo de saludo. La que está contigo [¿es pobre?]». Esas fueron tus palabras. (Pues bien, yo ahora te contesto así:) Verdaderamente los reyes de los países vecinos son ricos y poderosos; tus hijas pueden obtener cualquier cosa de ellos y enviártela. ¿Pero qué tiene la hija tuya que vive conmigo? No obstante, si obtiene alguna cosa, te la enviaré. Está muy bien eso de entregar a tus hijas con el fin de obtener un pepita de oro procedente de allende tus fronteras” (Kuhrt 2001, 381-382).

Kadashman-Enlil I. eta Amenofis III.aren artean enbaxaden eta oparien bidalketak eman ziren hasieran. Opariak ez eramateak irudi txarra ematen zion estatuari (Armijo 2003, 110). Oparien adibide gisa, EA 3 eskutitza dugu, zeinetan Babiloniako erregeak 50 zerbitzari, 10 zaldi eta 10 gurdi bidaltzen dizkion faraoiari bere jauregia berriaren inaugurazioan (*Ibidem*, 112).

Baina laster urrearekin arazoak hasiko ziren. Urreak paper garrantzitsua bete zuen elkartrukeetan. Asiriako erregeak EA 16 eskutitzean zioen bezala: “*en el país de mi hermano el oro es como el polvo*” (Pons 2009, 90). Garai honetan, urreak zilarra ordezkaturiko zuen, baina ze funtzio beteko zuen, urre patrioiarena edo opari funtzioarena? Francisco Marco Simonen arabera, El Amarnako Eskutitzek ez dute adierazten urrearen erabilera ordainketa modu gisa emango zenik. Babiloniako kasuan, gerra preso baten erreskatea ordaintzeko baliatu zen, baina gainerako kasuetan Egiptok eraldaturik bidaltzen zuen luxuzko produktuetan (1979, 192). Graciela Gestosok (2006) eta Amelie Kuhrt-ek (2001), ordea, Egipto eta Babiloniaren arteko elkartrukeetan urre patrioiaren presentzia defendatzen dute. EA 4 eskutitzean, Armijoren ustez Babiloniak Egiptori eraikuntzarako urrea eskatzen dio, baina kreditua edo oparia den dutatan jartzen du, urre patrioiaren ideia zalantza jarriz (2003, 124). Bestalde, prezioak urre patrioian oinarrituko zirela pentsatzeak loraldia zegoen garai bat islatzen du (Roux 1987, 273).

Kadashman-Enlil I.aren erreinaldian, urrearen bidalketa urriaren inguruko kexak hasi ziren (EA 4): “... *En cuanto al oro a propósito del cual te he escrito, [...] por favor, envíame el oro en el mes de Tammuz¹⁰ o de Ab¹¹ porque sino no me será posible terminar el trabajo que he apalabrado. Si me envías después 3000 talentos de oro, yo no los aceptaré y los devolveré y no te daré a mi hija en matrimonio...*” (Pons 2009, 88). Aldi berean, urrearen kalitateaz kexatu da: “... *pero, cuando te envié a un mensajero, tu lo retuviste seis años y tu me lo enviaste seis años después con un regalo de 30 minas de oro que resultaron contener gran cantidad de plata*” (*Ibidem*, 88).

Ordain gisa, Amenofis III.ak honako hau ematen dio (EA 5): “... *marfil y oro... una silla de ébano cubierta de oro... cinco sillas de ébano cubiertas de oro... cuatro sillas*

¹⁰ Tammuz hilabetea: Gregoriar egutegiaren arabera, ekaina-uztaila. Hebrear egutegian hamargarren hilabetea da, eta Biblian, berriz, laugarren hilabetea deitzen da.

¹¹ Ab hilabetea: Gregoriar egutegiaren arabera, uztaila-abuztua. Hebrear egutegian hamaikagarren hilabetea da, eta Biblian, berriz, bosgarren hilabetea deitzen da.

de oro cubiertas de oro... siete minas, nueve shekels¹² ... una mina... ocho shekels de plata... diez minas y siete shekels de oro...” (Ibidem, 88). Urrea nonahi azaltzen da.

EA 6 eskutizetik aurrera, errege aldaketa ematen da: Amenofis IV.a eta Burnaburiash II.a. Bi estatuen arteko harreman politiko nahiz komertzialen sendotzea hemendik aurrera emango da. Modu honetan, Babiloniako erregeak bere aitak ezarritako aliantza gogorarazten du, estatuen arteko elkartrukeek jarraitzeko (Marco Simon 1979, 195).

Hala ere, EA 7 eskutizetik aurrera, Babiloniaren aldetik kexek jarraituko dute: errearen inguruan, bereziki. Amenofis IV.aren erreinaldian zehar Egiptoren domeinua ahultzen da, ondorioz, ohikoa izango da kexak edo ohartarazpenak azaltzea. EA 7 eskutizaren kasuan (ikus. eranskinak 8.4.1.), Babiloniako monarkak Amenofis IV.ari bere arbasoaren leialtasuna gogorazten dio eta bi kezka adierazten dizkio: batetik, lehen aipatu bezala, gaixorik zegoela mezurik ez bidaltzea; eta bestetik, eraikuntzarako bidali dion urre eskasa (Armijo 2003, 124).

El Amarnako Eskutitzen ordenari jarraiki, EA 8 eskutitzean (ikus. eranskinak 8.4.2.) kexa desberdin bat aurkezten da. Burnaburiash II.ak bere karabana bati egindako eraso leporatzen dio Amenofis IV.ari, Egiptoko lurretan izan baita: Kinahhi, Kananen. Kalte ordainak ordaintzeko eskatzen dio (Marco Simon 1979, 195). Kasu honetan, Egipto eraso horren kargu egin behar da, kalteak ordainduz.

EA 9 eta EA 10 eskutizetan, errearen arazoa errepikatuko da. EA 9 eskutitzean, Babiloniako erregea bi kontuk kezkatzen dute. Batetik, bidalitako urrea urria zen: “*Mi hermano me ha enviado dos minas de oro como regalo... pero ahora envíame tanto oro como tus ancestros enviaron... envíame mucho oro*” (Pons 2009, 91). Eta bestetik, Egiptok Asiriarekin eginiko erlazio edo tratuek kezkatzen dute, Asiria Babiloniaren basailu baitzen (Lasso 2014, 254) (ikus. eranskinak 8.4.3.). EA 10 eskutizaren zati bat EA 4 eskutizarekin parekatu dezakegu, errearen kalitateaz kexatzen baita Babiloniako erregea:

“¡En cuanto al mensajero que me has enviado: las 20 minas de oro que ha traído no eran puras. Pues cuando se fundió el oro, quedaron solo 5 minas. Todo lo que resultó, fue sometido a nuestras pruebas. Hermano mío, pero (en el fondo) somos buenos amigos! Los lingotes de oro que mi hermano no había examinado, cuando los he

¹² Antzinateko Ekialde Hurbilean zerabilten unitate monetarioa eta pisu unitatea zen. 11, 14 edo 17 gramo izan zitzaketen eta urrezkoak edo zilarrezkoak ziren edo bien aleazioa.

enviado al crisol para ser fundidos, me han sido devueltos y no han querido aceptarlos...” (*Ibidem*, 91).

Urreaz gain, errege kasitek egiptoar eskulturak eta esfingeak miresten zituzten. EA 10 eskutitza, urrearen kalitate txarraz gain, horren isla da:

“Hay hábiles artesanos en el lugar en el que resides. Mándales que produzcan un animal salvaje, ya sea una criatura terrestre o acuática, tal como sea al natural, de modo que su piel sea exactamente como la del animal vivo. ¡Qué me la traiga tu enviado! Y si hay alguna ya disponible, haz que cuando Shindishugab, mi legado, llegue a tu corte, tome prestados inmediatamente unos carros y que venga aquí a toda prisa. Y que construyan alguna nueva para ser entregada más tarde...” (Kuhrt 2001, 383).

Urrea eta estatuez gain, zilarra eta urrez eginiko objektuak ere bidaltzen zizkion Egiptok Babiloniari. EA 14 eskutitzean, Amenofis IV.ak Burnaburiah II.ari bidaliko ondasunen zerrenda luzea dago: eraztunak, besaulkiak, puntzoiak, ispiluak, labanak, 1500 mina urre, 46,5 siculo zilar, etab... Betiere, altzairuetan urrea, zilarra edo brontzea txertatua egongo zen (Marco Simon 1979, 196). Zerrenda honen arrazoia, *emazte baten prezioa* da. EA 11 eskutitzean, Babiloniako erregeak bere alaba eskaintzen dio Egiptoko faraoiari. EA 12 eskutitzean, Babiloniak printzesarekin batera doan dotearen inbentarioa prestatzen du, eta EA 13an, Egiptok dotearen araberako *emazte baten prezioa* kalkulatzeko du (Armijo 2003, 125).

Bitartean, zer bidaltzen zion Babiloniak Egiptori? Produktu nagusia Badakhshan¹³ meatzeetatik zetorren lapislazulia zen, luxuzko ondasuna zena, opari gisa bidalia. Lapislazuliarekin batera, Zagros Mendietan zein Iranen sartzen ziren bideen kontrolarekin, kasitak Iraneko zaldia elkartrukatzeko gai izango ziren. Babiloniak Egiptori bidalitako protokolozko oparien artean zaldia egoten ziren, heziak eta erabiltzeko prest. Zaldiekin batera, gurdiak eramaten ziren, eta horrela, gerrarako tresna bihurtzen ziren (Kuhrt 2001, 383). Georges Rouxen arabera, XIV. mendean zehar, Babilonia eta Egiptoren arteko opari elkartrukatuak adiskidetasun nahiz anaitasunaren ohiko testigantzak gaintzen ditu: jauregien arteko elkartruke baten eredu dira, ordezkari berezien bidez (1987, 274).

¹³ Gaur egun, Afganistaneko eskualdeko probintzia da.

El Amarnako Eskutitzak ondasun hauen bidalketaren testigantza zuzenak dira. Lapislazuliaren bidalketa, Burnaburiash II.aren garaitik aurrera bidaltzen hasiko zen. EA 7 eskutitzean adibidez, hauxe dio: “*Only, four mines of beautiful lapis lazuli have I sent to my brother as a gift, and also five teams of horses. When the times are good, I will send with my future messengers many beautiful gifts, and anything that my brother wishes, he can write...*”¹⁴. EA 8 eskutitzean, opari gutxi bidaltzen zaizkio, Kanaan-en Burnaburiash II.aren mezulariari egindako erasoaren ondoren: mina bakarra. EA 9 eskutitzean, “*tres minas de lapislázuli auténtico y cinco tiros de caballos para cinco carros de madera*” bildaltzen dira. EA 10 eta EA 11 artean, 3 mina lapislazuli baino ez dira bidaltzen, gainerako printzesaren dotearekin baitzihoan (Armijo 2003, 124).

El Amarnako Eskutitzek Egipto eta Babiloniaren arteko oparien elkartruke baten eta elkartruke administratu baten testigantza uzten digute. Bi estatuen arteko tratatuak eman ziren, urre patroia oinarri izanda. Urrearekin batera, elkartrukaturiko opariak eta ezkontza diplomatikoak ahalbidetu zuten bien arteko harremana (Gestoso 2006, 209).

Prestigiozko ondasunen ekonomiatzat jo dira mota honetako elkartrukeak. Luxuzko ondasunetan oinarritzen dira, eta ondasun hauen sarrera kontrolatzen duten estatuek estatus maila altua lortzen dute (Aubert 2007, 115). Egiptok urre meatzeetan zuen sarrera, eta Babiloniak, lapislazulian. Bi ondasun hauetan esku hartzeak eta opari gisa bidaltzeak, prestigiozko ondasunen ekonomia eredu biltzen ditu bi estatu hauek.

EA 1etik EA 14ra doazen eskutitzek elkartruke baten ezaugarri ohikoenak biltzen dituzte: elkartruke administratua, oparien elkartrukea, enbaxaden eta errege ordezkarien bidalketa eta ezkontza diplomatikoak. Aldi berean, Amenofis III.aren garaitik, urre bidalketen inguruko kexek Egiptoren hegemoniaren beherakada bat suposa dezakete. Baina errearen inguruko kexek Babiloniak errearekiko zuen dependentzia islatzen dute.

5. EMAKUMEA

Ekonomian emakumeen papera ikerketa objektu izan da, baina garaiak baldintzaturik. Zentsu honetan, aldi ikasiena paleobabilonikoa da, iturrien ugaritasunagatik. Emakumeak jarduera ekonomikoetan aurkitzen ditugu: hala nola, salerosketa edo jesapenetan. Hala ere, beste zenbait lanbide bete zituzten: ehungintza lanak edo inude gisa, adibidez (Justel 2011, 396).

¹⁴ Iturria: <http://fontes.lstc.edu/~rklein/Doc6/ea7.htm>

Emakumearen presentzia jarduera ekonomikoetan urria da. Hala ere, Emar, Nuzi, Alalah IV¹⁵ nahiz Ugariteko asentamenduetako artxibo kuneiformeek emakumearen presentziaren testigantzak utzi dizkigute. Bi motatako operazio ekonomikoak bereizten dira: salerosketa edo elkartrukekoak, eta jesapenezkoak (Justel 2014, 175).

Salerosketan zati batek beste bati ondasun batzuk saltzen dizkio beste ondasun batzuen truke. Brontze Amaierako Sirian, emakumeak saltzaile gisa Emar edo Alalah IVko 19 kontratutan azaltzen dira. Bere estatusa bi mailatan bereizten da: bakarrik, inolako filiazio edo senar gabe, edo gizon baten laguntzarekin (senarra, aita, neba edo semea) (Justel 2008, 190). Adibide gisa, Emarreko emakume batek eta bere lau seme alabek bideraturiko etxearen salmenta dugu: “*Adamma-ili, esposa de Abi-kapi, junto con Dawan-niwari, Immi, Hab y Abiu, han vendido la casa de su padre a Belu-kabar y Dudu, por cuarenta y cinco siclos¹⁶ de plata*” (Justel 2014, 180).

Erosle gisa, emakumeen kopuruak behera egiten du. Berezitasuna Ugariteko Taryelli erreginak eginiko erosketak dira. Dokumentatu diren beste emakumeekin alderatuz, askatasun handiagoa izango zuen. Hauek izan ziren bere erosketak: 5 zelai (RS¹⁷ 17.102), esklabo bat (RS 17.231) eta instalazio bat (RS 17.325) (Justel 2008, 197). Hala ere, emakumeek presentzia urria izan zuten, eta erosteko zuten diru kopurua txikiagoa zen. Salbuespenezkoa zen emakumea salerosketetan parte hartzea (*Ibidem*, 200-201).

Jesapen jardueretan, zorren testuinguruan handitzen da emakumeen presentzia. Horrelako operazioetan, hiru paper bete zitzaketen: hartzekoduna, zorduna edo garantia gisa. Hartzekodun gisa, Emarreko lau dokumentu ditugu: TBR¹⁸ 33, TBR 27, RE¹⁹ 67 eta Hir²⁰ 37 (Justel 2008, 215). Azken testigantza honek, ordea, emakume hartzekodunaren eta zordunaren egoera erakusten digu. Zu-Astartik (gizona) Ba`la-ilik (emakumea) Eserturekin (emakumea) zuen zorra kitatu zion: “*Ba`la-ili, hija de ‘Aryu, así ha dicho: «En el año del hambre, no había nadie que me honrase. En este momento Zu-Astarti, hijo de Ahi-malik, hijo de Kutbu, ha pagado mi deuda, veinticinco siclos de plata, y me ha alimentado a pan y agua»*” (*Ibidem*, 216).

¹⁵ Bi maila arkeologiko bereizten dira: Alalah VII (ca. 1800-1650) eta Alalah IV (ca. 1500-1400). Bigarren maila kronologikoari begira, kronologia horretan, Alalah IV Mitanniren inperiopean aurkituko zen (Justel 2008, 28).

¹⁶ Antzinateko Ekialde Hurbilean erabiltzen zen pisu unitate eta unitate monetarioa zen. Urrezkoa edo zilarrezkoa izaten zen.

¹⁷ Justelek erabilitako iturria: RS edo Ras Shamra, inbentario zenbakia.

¹⁸ Justelen erabilitako iturria: Arnaud 1991.

¹⁹ Justelek erabilitako iturria: Beckman 1996a.

²⁰ Justelek erabilitako iturria. Hi redo Hirayama bilduma: Tsukimoto 1991, 302-303.

Azkenik, garantia bezala emandako emakumeak ditugu. Bi iturri aipatuko dira: bata, Alalah IV asentamendukoa, eta bestea Nuzikoa. Lehenengo iturrian, Ba'alaya izeneko gizonak mailegu bat eskatu zuen, eta garantia gisa bere emaztea, seme-alabak eta ondasunak uzten ditu:

“Ante el rey Ilim-ilimma, Ba'alaya, junto con su esposa y su hijo Akiya, han tomado veinticuatro siclos de plata. Ba'alaya entregará a comienzos del año (que viene) doscientas tórtolas como interés; sino será mandado a la cárcel. (Por) si Ba'alaya huye, desaparece o muere, su esposa, sus hijos y sus propiedades permanecen como garantía” (Justel 2014, 201).

Nuzin, horrelako egoerak ematen ziren, eta hartzekodunak garantia uzten zuen ondasun edo pertsonari *tidennu* esaten zitzaion. Ondoko testuan, hiru egoerak azalduko zaizkigu. Uzna emakumeak Akawatil emakumeari eta Elmase gizonari 17 animalia maileguan eman zizkien. Hauek, Akawatilen ahizpa, Pizunne, entregatu zuten *tidennu* gisa: “*Han entregado a Pizunne como tidennu de Uzna. Uzna ha entregado: siete carneros (ya) criados, tres ovejas esquiladas tres veces, una oveja esquilada una vez, dos cabras crecidas, una cabra esquilada y un macho cabrío. Cuando Akawatil y Elmase devuelvan las propiedades podrán recuperar a Pizunne*” (Ibidem, 203).

Halaber, emakumearen parte hartzea urria izan zen jarduera ekonomikoetan; %5-10 izatera ez ziren helduko (Justel 2008, 220). Lanean zehar ikusi den bezala, emakumeen presentzia ezkontza diplomatikoetan emango da. Modu honetan, emakumea izango zen ondasuna. Aliantza hauen bidez, harreman soziopolitikoak indartzeaz gain, emakumea bidaltzen zuen estatuak beste estatuaren opariak lortzen zituen.

Nazioarteko ezkontza hauek estatuen arteko tratatuak ziren. Printzesak dote baliotsu bat eramane behar zuen, zein gizonak *emazte baten prezioagatik* konpentsatzen zuen (Armijo 2003, 117). *Emazte baten prezioa* opariak ziren, beraz, ezkontza diplomatikoak oparien elkartrukearen barruan aurkitzen ditugu. Gainera, normalean, emakume bat ezkontzan ematen zenean, kontrako norabidean beste emakume bat eskaintzen zen (Gestoso 2008, 35).

Ezkontza diplomatikoen adibide gisa, Taduhepa printzesaren ezkontza (ikus. eranskinak 8.5.) dugu: Mitanniko Tushratta erregearen (1380-1350) alaba. El Amarnako EA 22 eta EA 25 eskutitzen Taduheparen dotea aurkezten dute: 4 zaldi, 320 zikloko urrezko

gurdia, harri preziatuak, soinekoak, lepokoak eta eraztunak, zilarra, brontzea, 4186 ziklo urre, etab. (Marco Simon 1979, 197). Hala ere, dotearen prestakuntzak lana zuen. Taduhepa eta Amenofis III.aren ezkontzan, Mane, Egiptoko mezularia Mitannira lekualdatu zen errege ezkontzak zeraman akordio ekonomikoa bideratzeko. EA 22ean zehaztu zen dotearen inbentarioa (Armijo 2003, 117). Dotearen tamaina, Amenofis III.ak eskaintzen dion urrearen arabera izango da. Tushrattak EA 19 eskutitzean, urrearen truke, bere alaba eta dotea emango dizkiola esaten dio: “... *tu padre envió mucho oro, envíame gran cantidad de jarras de oro y plata, envíame lingotes de oro [...], más oro del que recibió mi padre*” (Pons 2009, 89).

Baina printzesak ez ziren elkartrukatzen ziren emakume bakarrak. Konkubina edo zerbitzarien bidalketa erregistraturik daude. Babiloniak EA 3 eskutitzean 25 emakume bidaltzen ditu, eta Mitannik, EA 19 eskutitzean, bere alaba eskaintzeaz gainera, 30 emakume bidaltzen dizkio. Hauen balio zilar unitateetan neurtuko zen, eta luxuzko produktuen ordezkatzeko ziren (Gestoso 2008, 36).

Emakumeak erregeen arteko oparien beste ondasun bat ziren, eta hauen balioa, estatus sozialaren arabera izango zen. Josue Justelek, bere aldetik, Siriako Brontze Berrian Emar, Alalah IV nahiz Ugarit asentamenduetan emakumeek ekonomia jardueretan zuen presentzia aztertzen du. Kronologia zein geografia esparruari erreparatuz gero, iturri faltak ikerketa zailtzen du. Parte hartze mugatua eduki zuten, eta aurretik ikusi den bezala, erosle gisa mugak izan zituzten, gasta zezaketen diruari dagokionez. Ondorioz, Hatshepsut edo Nefertiti bezalako erreginak egon edo Ugariteko Taryelli erreginak erosketak egiteko askatasuna izan, errealitatean, emakumeak bizitza publikoan esparru mugatua izango zuen.

6. ONDORIOAK

El Amarnako Eskutitzen azterketa zabal baten bidez, Egipto eta Mesopotamiaren arteko elkartruke ekonomikoen inguruko informazio zabala bildu daiteke. Polanyik adierazitako elkarrekikotasun harremanen bidez, estatuen arteko tratatu edo akordioak emango ziren, elkartruke administratu bati bide emanez. Elkartruke administratu honek desberdintasunak izango zituen estatuen mailari dagokionean; hau da, alde batetik, berdintasunean oinarrituriko estatu *anaiak* egongo ziren, eta beste alde batetik, estatu basailuak. Elkartruke administratuaren arrastoa El Amarnako eskutitzek uzten digute:

enbaxadek eta errege ordezkariak beteriko papera erabakigarria izan zen tratatuak bideratzeko orduan.

Estatu desberdinen arteko ondasunen trukatzeko honek, *koiné* edo kultura amankomunaren ideia zabaldu du ikerlarien artean; beraz, Egipto eta Mesopotamiako estatu handi zein basailuek tradizio eta ohitura antzekoak partekatuko zituzten. Honek, oparien elkartruke bati bide emango zion, estatuen arteko harreman ekonomiko nahiz diplomatiko onaren adierazle izanik. Oparien elkartrukea luxuzko ondasunen elkartrukean oinarrituko zen, prestigiozko ondasunen ekonomia bati bide emanez. Estatu batek beste bati bidalitako opariak, estatu horrekiko zuen miresmen eta errespetuaren seinale ziren. Ondasun baliotsuena metalak ziren, eta lanean zehar ikusi den bezala, urreak protagonismo handia hartu zuen Babilonian nahiz Asiria edo Mitanni bezalako eskualdeetan.

Urrearen garrantzi honek, eta EA 4 eskutitzetik, hau da, Kadashman-Enlil I.ak Amenofis III.ari bidaltzen dion eskutitzetik aurrera ematen diren kexek, bi ondorio ateratzera eramaten gaituzte. Batetik, Egiptok Punt eskualdeko urre meatzeetan zuen kontrola galduko zuela, edo urre erreserben behar-kada eman zela. Eta bestetik, Mesopotamiako estatuak urrearekiko zuten dependentzia adierazten da. Urrearen behar honek, Egiptoren hegemonia batean pentsatzera eramaten gaitu, berdintasunean oinarrituriko harremanak bazituen ere Babilonia, Asiria edo Mitannirekin.

Egiptoren nagusigoaren beste adibide bat ezkontza diplomatikoak izango ziren; Taduhepa, Mitanniko erregearen alabarena, edo Burnaburiash II.ak bere alaba eskaintzen duenean. Ezkontza hauen bidez estatuen arteko harremanak legitimizatzen ziren, baina aldi berean Egiptoren garrantzia azpimarratzen zen. El Amarnako eskutitzek ez dute islatzen egiptoar printzesen bidalketarik; Mesopotamiar estatuak, ordea, Egiptoko faraoiari haien printzesak, zerbitzariak nahiz konkubinak bidaltzen zizkioten.

Bestalde, ezkontza diplomatikoen emakumeak zuen papera islatzen dute. Ezkontza diplomatikoetan eta elkartruke harreman hauetan, emakumea beste ondasun bat zen, harremanak legitimizatzeke helburuarekin bidaltzen zena. Josue Justelek jarduera ekonomikoetan zuten rola aztertuz, haien presentzia urria azpimarratzen du. Halaber, iturriek haien jarduera batzuen (konkubina edo zerbitzari) berri ematen badigute ere, zaila da emakumearen egoera iturri idatziekin eskaintzen diguten informazioetatik ateratzea:

azken finean, goi mailako edo estatus sozial altuko emakumeen papera biltzen dute, eliteko emakumearen historia landuz.

Beraz, Tutmosis III.aren garaian eman zen hedapenak Mesopotamiako estatuei egiptoar ondasunen sarrera suposatu bazien ere, iturri idatziek nahiz historiografiak Egipto jartzen dute erdigunean. Siriar-palestinar eskualdearen kontrolak Mesopotamiara hurbiltzeko elkartruke bideen sarbidea ahalbidetu zion Egiptori, bere eragina ezarriz. Horren adibide, Babiloniako erregeak gustuko zituen esfinge edo estatuak ziren. Gainera, hauek izan dira elkartruke harremanak ulertzeko erabili diren iturri arkeologiko bakarrak, Karnak tenpluarekin edo Amarnako hiriarekin batera. Iturri idatziek elkartrukeak ulertzeko oinarritzko iturria dira, eta El Amarnako eskutitzek protagonismoa hartu dute. Ondorioz, iturri arkeologikoek eskaintzen duten informazioan sakontzea beharrezkoa litzateke.

7. BIBLIOGRAFIA

- ARMIJO, T., 2003, «Regalos, comercio y créditos internacionales. Según las Cartas de Amarna», *Asociación Española Orientalistas*, XXXIX., 108-128.
- AUBET, M.E., 2007, *Comercio y colonialismo en el Próximo Oriente antiguo. Los antecedentes coloniales del III y II milenios a.C.*, Barcelona: Ediciones Bellaterra.
- AVDIEV, V.I., 1986, *Historia económica y social del Antiguo Oriente. I. El Egipto faraónico*. Madrid: Akal.
- GALÁN ALLUÉ, J.M., 1995, «Aspectos de la diplomacia del Antiguo Egipto hasta ca. 1230 a.C.», *Sefarad: Revista de Estudios Hebraicos y Sefardíes*, 1., 150-126.
- GESTOSO SINGER, G., 2008, «Egipto y sus periferias en el Levante durante la dinastía XVIII», *Cahiers Caribéens de'Egyptologie*, 11., 129-143.
- , 2006, «El intercambio de materias primas y bienes de prestigio entre Egipto y los estados de Mesopotamia (siglos XV y XIV a.C.)», *Aula Orientalis*, 24. bol, 2., 189-211.
- JUSTEL, J., 2008, *La posición jurídica de la mujer en Siria durante el Bronce Final*. Zaragoza: Instituto de Estudios Islámicos y del Oriente Próximo.
- , 2014, *Mujeres y derecho en el Próximo Oriente Antiguo. La presencia de mujeres en los textos jurídicos cuneiformes del segundo y primer milenio a.C.* Zaragoza: Libros Pórtico.
- , 2011, «Mujeres y género en la historiografía del Próximo Oriente Antiguo: pasado, presente y futuro de la investigación», *Arenal*, 8. bol., 2., 371-407.
- KUHRT, A., 2001, *El Oriente Próximo en la antigüedad (c. 3000-330 a.C.)*. Madrid: Crítica.
- LASSO, R., 2014, *Fuentes para la Historia Antigua de Egipto y Asia Interior (3500 a.C.-500 a.C.)*. Buenos Aires: Ediciones Laigión.
- LEEMANS, W.F., 1960, «The trade relations of Babylonia and the question of relations with Egypt in the Old Babylonian Period», *Journal of the Economic and Social History of the Orient*, 3. bol., 1., 21-37.

LIVERANI, M., 1995, *El Antiguo Oriente. Historia, sociedad y economía*. Barcelona: Crítica.

PEREZ LARGACHA, A., 2006, *Historia Antigua de Egipto y del Próximo Oriente*. Madrid: Ediciones Akal.

—, «El comercio en el Mediterráneo Oriental durante el Bronce Reciente», DOMINGUEZ, A., MORA, G. (ed.), 2010, *Doctrina a magistro discipulis tradita*-ean. Madrid: Ediciones UAM.

POLANYI, K., «La economía como actividad institucionalizada», POLANYI, K., ARENSBERG, C., PEARSON, H., 1976, *Comercio y mercado en los imperios antiguos*-ean. Barcelona: Labor Universitaria.

PONS, E., 2009, «El papel de los metales en las transacciones comerciales internacionales entre Egipto y otros países», *Aula Orientalis: revista de estudios del Próximo Oriente Antiguo*, 27. bol., 1., 77-104.

ROUX, G., 1987, *Mesopotamia*. Madrid: Akal.

MARCO SIMON, F.M., 1979, «El regalo como distribución exterior del excedente en las sociedades asiáticas de Próximo Oriente Antiguo (s. XIV a.C.)», *Memorias de historia antigua*, 3., 189-198.


8. ERANSKINAK

8.1. Iturrien irudiak

8.1.1. El Amarnako eskutitzen adibide: EA 19, Tushratta eta Amenofis III.aren arteko tablilla

Iturria:


http://www.britishmuseum.org/research/collection_online/collection_object_details/collection_image_gallery.aspx?partid=1&assetid=1146472001&objectid=327168



8.1.2. Tutmosis III.aren Anakak: Karnak tenpluko pilonoa

Iturria:

https://es.wikipedia.org/wiki/Tutmosis_III#/media/File:Thutmose_III_at_Karnak.jpg



8.2. Diplomazia

8.2.1. EA 7: Burnaburiash II.ak Amenofis IV.ari gogorazten dio ez zuela mezurik jaso gaixorik zegoela.

Iturria: WESTBROOK, R., 2000, «Babylonian diplomacy in the Amarna Letters», *Journal of the American Oriental Society*, 120, 379.

Furthermore, since I was not well and my brother showed me no concern, I for my part became angry with my brother, saying: “Has my brother not heard that I am ill? Why has he shown me no concern? Why has he sent no messenger here and visited me?”. My brother’s messenger addressed me, saying: “It’s not a place close by so your brother can hear about you. The country is far away. Ask your own messenger whether the country is far away and as a result your brother did not hear and did not send to greet you”. Now, since I asked my own messenger and he said to me that the country is far, I was not angry, I said no more.

8.2.2. Amenofis IV.aren Tutu errege mezulariaren hilobia

Iturria: GALÁN ALLUÉ, J.M., 1995, «Aspectos de la diplomacia del Antiguo Egipto hasta ca. 1230 a.C.», *Sefarad: Revista de Estudios Hebraicos y Sefardíes*, 1., 119.





Fig. 4. Tumba de Tutu en Amarna

8.3. Mapak

8.3.1. Brontze Berriko potentzia nagusiak, 1500 aldera

Iturria: <http://cunasdelacivilizacion.blogspot.com.es/2008/10/dwsdfcsd.html>



8.3.2. Brontze Berriko potentzia nagusiak Tutmosis III.aren eta Suppiluliuma I.aren kanpaina militarren ostean.

Iturria:


https://es.wikipedia.org/wiki/Hatti#/media/File:Moyen_Orient_13e_si%C3%A8cle-es.svg



8.3.3. Egiptok baliaturiko elkartruke bideen mapa: Via Maris (morea), Erregeen Bidea (gorria) eta bestelako bide komertzialak 1300 urtean.


Iturria:

https://es.wikipedia.org/wiki/V%C3%ADa_Maris#/media/File:Ancient_Levant_routes.png



8.3.4. Mesopotamiak baliaturiko elkartruke bideen mapa

Iturria: <https://lampuzo.wordpress.com/2014/05/19/urkesh-ur-kasdim-la-impronta-hurrita-en-la-genealogia-del-patriarca-abraham/ruta-comercial-ii-milenio-a-c/>



8.3.5. Siriar-palestinar eskualdearen mapa

Iturria: GONZÁLEZ WAGNER, C., 1993, *El Próximo Oriente Antiguo*. Madrid: Editorial Síntesis, 130.




Fig. 6.1. El dominio egipcio en Siria Palestina

8.4. El Amarnako eskutitzak

8.4.1. EA 7: Babiloniako Burnaburiash II.aren eskutitza Amenofis IV.ari

Iturria: <http://fontes.lstc.edu/~rklein/Doc6/ea7.htm>

To Napkhururia, Great King, king of Egypt, thus speaks Burnaburiash, Great King, king of Karduniash²¹, your brother. I and my house, my horses and my chariots, my notables and my land, we are well. May well-being reign over my brother and his house, his horses and his cars, his notables and his land.

From the day on which the envoy of my brother arrived before me, my body has not been well, and his envoy has never eaten or drunk before me. See, if you question your envoy, he cannot tell you that my body is not well, and ... And as my body is not well and my brother ... I vented my anger with my brother with the following words: Should my brother not know that I am ill? Why has he not supported my head? Why has he not worried and sent his messengers?

The envoy of my brother has spoken thus: The way is not short, so that your brother can find out and send you greetings. The passage is long to your brother. Who can inform him, so that he sends a greeting to you quickly?

He next spoke thus: Question your messenger if the passage is not long...

As I asked my messenger, and he said that the way was long, no longer make I my brother the object of my anger.

As one has said that in the land of my brother there is everything, and that my brother lacks nothing, of everything there is also in my land, and I lack nothing. For a long time we have had good relations between us kings, and we exchange greetings. These relations between us must remain...

Only, four mines of beautiful lapis lazuli have I sent to my brother as a gift, and also five teams of horses. When the times are good, I will send with my future messengers many beautiful gifts, and anything that my brother wishes, he can write...

I have started an undertaking, and for this reason I write to my brother. My brother should send me much gold, that I need for my work. But the gold that my brother sends

²¹ Kasitek Babilonia izendatzeko modua.

me, do not leave it to some official. Let the eyes of my brother inspect it, and let my brother seal it and send it! Because as far as the previous gold is concerned, which my brother did not inspect personally, but which was sealed and sent by an official of my brother, of the 40 mines which I put in the furnace, there was barely anything of value left.

And with regards to Salmu, my envoy, twice has his caravan been plundered. Once it was plundered by Biriazama, and his other caravan by Pamahu, a governor of a land that belongs to you. And this matter, my brother, you must put right! When my envoy appears before my brother, then let also appear Salmu. His ... has to be returned to him, and the damages have to be made good.

8.4.2. EA 8: Babiloniako Burnaburiash II.aren eskutitza Amenofis IV.ari

Iturriak: <http://fontes.lstc.edu/~rklein/Doc6/ea8.htm>

“To Naphkhouria²² King of Egypt, my brother, to say: Thus speaks Burnaburiash King of Babylon, your brother. I am well. To your country, your house, your women, your sons, your ministers, your horses, your chariots, many greetings. I and my brother have signed a treaty, and I spoke thus: Like our fathers, who were friends, we will be friends.

And now, my merchants who travelled with Ahutabu delayed in Canaan for business. After Ahutabu set out on his way to my brother and in the town of Hanatun which is in Canaan Shumda Son of Baluma and Shutatna Son of Shartum from Akko sent their men there. They beat my merchants and stole their money. Ahutabu, whom I sent to you, is before you. Ask him and he will tell you. Canaan is your country and its kings are your slaves, in your country I was robbed. Bind them and return the money they robbed. And the men who murdered my slaves, kill them and avenge their blood. Because if you do not kill these men, they will again murder my caravans and even my ambassadors, and the ambassadors between us will cease. If this should happen the people of the land will leave you”.

²² Akhenaton edo Amenofis IV.a

8.4.3. EA 9: Babiloniako Burnaburiash II.aren eskutitza Amenofis IV.ari


Iturria: LASSO, R., 2014, *Fuentes para la Historia Antigua de Egipto y Asia Interior (3500 a.C.-500 a.C.)*. Buenos Aires: Ediciones Laiglón.

“Dicho a Nibhurreya, el rey de E[gipto], mi [hermano]: Asi [habla] Burra-buriyash, rey de Karad[un]iash, tu hermano: Todo va bien para mí. Para ti, para tu casa, tus mujeres, tus hijos, tu país, tus grandes, tus caballos, tus carros, ¡Qué vaya todo muy bien!

Desde tiempo [en que] mis ancestros y tus ancestros hicieron una declaración recíproca de amistad, ellos se envia[ron] buenos regalos como homenaje, y no rehusaron jamás una petición de cosa alguna valiosa. Mi hermano me ha enviado entonces dos minas de oro como regalo de homenaje. Si el oro es abundante, envíame tanto como tus antepasados. Pero si es escaso, envíame la mitad de lo que tus antepasados enviaban ¿Por qué me enviaste dos minas de oro? Mi trabajo para el templo es en este momento considerable, y estoy muy ocupado en su ejecución. Envíame mucho oro. Y por tu parte, todo lo que quieras de mi país, escíbeme para que se te pueda enviar.

En la época de Kurigalzu, mi antepasado, todos los cananeos le escribían aquí diciendo: ‘V[e]n a las fronteras del país para que podamos rebelarnos y aliarnos [con]tigo’. Mi antepasado les envió esta respuesta: ‘No penséis en una alianza conmigo. Si os convertís en los enemigos del rey de Egipto, y si os aliáis con cualquier otro, ¿no he de ir yo a saquear vuestros hogares?, ¿cómo puede haber una alianza conmigo?’.

Por miramiento hacia su antepasado, mi antepasado no les escuchó. Ahora en lo que concierne a mis subordinados asirios, no soy yo quien te los ha enviado ¿Por qué han ido ellos a tu país por iniciativa propia? Si me eres leal no negociarás asunto alguno. Envíamelos con las manos vacías. Te mando como regalo de homenajes tres minas de lapislázuli auténtico y cinco tiros de caballos para cinco carros de madera” (Lasso 2014, 253-254).



Iturria: https://es.wikipedia.org/wiki/Burnaburiash_II#/media/File:BM_29785_EA_9_Reverse.jpg

**8.5. Taduhepa, Mitanniko Tushratta erregearen alaba eta Amenofis
III.aren emaztea**

Iturria: http://realhistoryww.com/world_history/ancient/Egypt_3.htm

